

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### GIZA BALIABIDEEN SAILA

#### **Gasteizko Udaleko diruzain lanpostua betetzea, behin-behineko izendapenaren edo zerbitzu-eginkizunen bidez**

Behin-behineko izendapenez Gasteizko Udaleko diruzain zereginetan diharduen pertsonak erretiroa eskatu duelarik, ez dago lanpostuari dagozkion eginkizunak beteko duenik, lehendik ere hutsik baitzegoen lanpostua.

Estaturako gaikuntza duten toki-administraziooko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren arabera, lanpostu hori —zeina jarraian adierazitako moduan definitzen baita Udal honen lanpostuen zerrendan— estaturako gaikuntza duten toki-administraziooko funtzionarioei gordetzen zaie:

Destino osagarria (DO): 28; Berariazko osagarria (BO): 25; dedikazioa: ehuneko 100; hizkuntza eskakizuna: 4.a; derrigortasun-data: 1991eko urriaren 31.

Kontuan hartu da Toki Araubidearen Oinarrien Legearen 92.bis artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa, baita eta martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa ere.

Beraz, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak —abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua— 127. artikuluan aitortutako eskumenak direla medio, eta Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 21ean emandako eskuordetzea baliaturik, honako hau ebatzi dut:

#### Ebazpena

Lehena. Hamar eguneko epea irekitzea, iragarkia ALHAOn argitaratzen denetik, udalerriko diruzainaren lanpostua behin-behineko izendapenaren bidez —edo zerbitzu-eginkizunen bidez— betetzeko prozesuan parte hartu nahi duten hautagaiek eskabideak aurkeztu ditzaten.

Estaturako gaikuntza duen toki-administraziooko funtzionario bat izendatu beharko da, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala eta kategoria berekoek; behar bezala egiaztatuko da hori.

Hainbat hautagai aurkeztuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoan deitutako azken lehiaketa arruntean merezimendu orokorretan puntuaziorik handiena lortu duena proposatutako da izendatzeko hautagaitzat.

Bigarrena. Aukeratutako hautagaiaren alde behin-behineko izendapena egin dezan proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Hirugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, toki administraziooko gaikuntza nazionaleko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuko 48. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako prozedurarekin jarraitzea.

Laugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea. Ebazpenaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze

errekurtsua, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratze egunaren biharamunetik; horren esanbidezko ebazpenaren kontra, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahalko da Gasteizko Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, errekurtsua ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urriaren 8an

*Gasteizko Udaleko Giza Baliabideen zinegotzi ordezkariak*

*IÑAKI GURTUBAI ARTETXE*